

PLIKA ZENBAKIA	Ariketa	1A PROBA
	Kidegoa	HIZKUNTZA ESKOLA OFIZIALAK
	Espezialitatea	EUSKARA
	Data	2021eko ekainaren 26a

1-ENTZUNAREN ULERMENA (lehen ariketa)

(Probak 2 puntuko balioa du) (Audioa behin bakarrik adituko duzu. Audioak 3:14ko iraupena du)

Egizu aditu duzun audioaren 125-150 hitzeko laburpena, bertan informazio esanguratsuen zehaztasunez jasoz. (Bigarren audioa 30 minutu barru paratuko dugu)

1-ENTZUNAREN ULERMENA (bigarren ariketa)

(Probak 2 puntuko balioa du) (Audioa bitan adituko duzu. Audioak 7 minutuko iraupena du).

(Audioak entzundakoan, bi ordu duzu proba osoa burutzeko).

Erantzun galderak zehaztasunez.

Ibai Iztueta: Euskal kultura euskaraz baino ez da posible, ala espainolez eta frantsesez ere bai?

GALDERAK:

1. Txillardegiren erantzuna zein zen? Zerk huts egiten du erantzun honetan Ibai Iztuetaren ustez?
2. Ramon Zalloren erantzuna zein zen? Zerk huts egiten du erantzun honetan Ibai Iztuetaren ustez?
3. Zergatik dio Ibai Iztuetak konturatu zela arazoa ez zegoela erantzunetan eta zalantzan jarri behar zena galdera bera zela?
4. Nola erantzun behar zaio galderari Ibai Iztuetaren iritziz?
5. Ibai Iztuetak esan duenaren arabera, zer da iruzur egitea auzi honetan?

PLIKA ZENBAKIA	Ariketa	1A PROBA
	Kidegoa	HIZKUNTZA ESKOLA OFIZIALAK
	Espezialitatea	EUSKARA
	Data	2021eko ekainaren 26a

2-IRAKURRIAREN ULERMENA ETA IDATZIZKO PRODUKZIO ARIKETA

Egizu testu honen laburpena eta testuak dioenari buruzko zure gogoeta ere eman ezazu. (Gehienez 150-200 hitz) (Proba honen balioa: 3 puntu)

Lagun ona

«Gmail: 1 mezu berri».

Olatz da. Berantago ikusiko dut, lasaitasun tarte dudanean, ez dauka presarik, zalantza batekin liteke, iritzi beharra, luze jo dezake. Olatz da lagun on bat. Lagun ona.

Gizonek beharbada, hasteko emazte anitzek dukegu holako bat, urteetan ehun harreman bat, nahiz ez diogun nehorri salatzen, batez ere, gizona baldin bada, ez bikotekideei, debaldeko eztabaida eta justifikazio saioetatik salbatzeko, bitxikeria gisa ikusiko bailukete, kalapita luzeen iturri litekeelako, deusengatik. Uler bailezakete, agian bai, aldiz nekez onar. Oroz gainetik ez diegu aipatzen, berek ere izan baitezakete antzeko bat, beharbada emaztea, eta horren aitoren soila buruhauste gaitzen metxa genuke.

Normalki, lagun onarekin interes zenbait bada komunean, gutxienekoa, filiazio azalgaitzaren altxagarri dena eta ekaia eman dezakeena elkarren arteko harremanetan. Haatik ez dugu komunikazioaren eduki nagusia.

Azaltzeko, lagun onak, batzuetan sare sozialetatik, buruz buru bakanetan, telefonoz gutxi, nagusiki emailez jasotzen ditu eta eskatzen gauzak, entzuten du kontatzen diogun hori, erantzuten gehiagorik galdetu gabe, aholku objektiboa ematen, interesik gabeko kanpo iritzia, noizbehinka gogorki eta krudelki gure lekuan birkokatzen: halaxe eskatzen diogulako, hori baitu funtzioa. Irregulariki, maiztasun eta intentsitate arras muturrekoetan gainera, eguneroko mezu joan-jinen hari luzea nahiz laburra sor lezake: kezka eta pozen aipamenak, eguneroko gorabehera arrunten kontaktak, jakinarazpen hutsak. Bizkitartean ez zaio dena kontatzen, nahi dena baizik.

Argiki, ez da Glattauerren bi eleberritako teasing miserablearen mailako harreman bat, aldizkako manipulazioaren labirintoetan galgarri, izakien aroaren arabeko tirrien

PLIKA ZENBAKIA	Ariketa	1A PROBA
	Kidegoa	HIZKUNTZA ESKOLA OFIZIALAK
	Espezialitatea	EUSKARA
	Data	2021eko ekainaren 26a

menpe, sorpresa izpirik gabeko amaiera gezakoa. Oraino konplexuagoa da. Pertsona horrekiko harremana baiki platonikoa da, erakarpen fisikorik ez du, erakarpena hurbiltasun eta sentikortasun intelektualaren mailan kokatzen da, nahiz askorentzat bien arteko muga lausoa gerta.

Denetik baino, ez-denetik definitzen da. Maiz ez da emaztea izaten, sexu berekoen artean lehia punta baita, ispilu efektu bat elkar-ulermena faltsutzen duena. Artetik naski, sexu berekoa balitz, ez litzateke aitzakia susmo eta interpretazio okerretarako, gardenagoa litzateke, normalagoa. Gauzak zer diren, ni hasteko, betidanik hobeki konpondu naiz mutiko eta gizonekin. Ez da lankide bat, ez kolaboratzailea, ez da alternatiba, ez haurra, ez norbait zeinekin mozkortzen garen, ez norbait norekin antzerkira goazen, ez senarra, ez aita, ez amantea, ez sex-friend-a, ez kargu bat, ez konfidente absolutua, ez kontzesio eskalea, ez engaiamendua, ez erregularra, ez konplikatu. Harreman horrek ez du garapen perspektibarik, bere horretan segitzea aski zaio. Elkarri galdetzen diogun bakarra da izatea, behar deneko.

Sekulan galaraziko balidate, huts eginen balit, huts eginen banio, urrunduko bagina, orduan, nork eta nola salbatuko lituzke orkidea eta zitoria? Nork entzunen luke isiltasunak xuxurlatua?

Bea Salaberri, Baionak ez daki (Susq, 2015)

PLIKA ZENBAKIA	Ariketa	1A PROBA
	Kidegoa	HIZKUNTZA ESKOLA OFIZIALAK
	Espezialitatea	EUSKARA
	Data	2021eko ekainaren 26a

3-GAITASUNAK ERAKUSTEKO ARIKETA-USTIAKETA DIDAKTIKOA

Ondoko bi testu hauen ustiaketa didaktikorako proposamena egin behar duzu. Bi testu, proposamen bana. Zehaztu ahalik eta gehiena: maila, noiz, jarduerak, talde dinamika, testuan zer/nola landu ... (Ariketa honek 3 puntuko balioa du)

A-TESTUA

Gurean, euskararen erregistro gabeziak

Gurean, euskarak eta, ondorioz, euskal literatur hizkuntzako izkribu eta mintzaira molde askok aspaldikoak dituzte mila eta bat arazo. Arazo anitz eta pluralak bezain orokor eta detailezkoak. Hona hemen detailezko daitekeen baten segizio biografiko-eszenikoa.

Oso umetako oroitzapen gisakoa dut euskarak ez zuela maldiziotarako joerarik, ez zela horretara emana aldarrikatzen zuen esana, araua. Eta sinestu egin nuen. Era berean sinestu ere nuen, ordea, euskarak ez zuela ez gatzik, ez piperririk... eta erdaraz aritu izan ginen txiste kontari *-txistea erdaraz zen eta!*- non eta Getarian!

Gaztetan, Zarauzko frontoira edota plazara neskatara biltzen ginenean ere (egia esan, abildade honetan oso forofo ezin ginen izan, baina tira! saiatzen ginen, hala ere) kale egin ohi zidan euskarak. Ez zidan balio zirri libidinoso, urri eta iheskorak: halere, lortzeko ere, antzua izaki horretarako ere! Hura zen neurosia neurea, hizkuntzak ez ezik neskek ere kala.bazak, alajaina!

Gaur egun ni neu zahar sentiarazten nauten nire ikasle gazteei ere kexu bera darie (hauei hizkuntzarekikoa soilik, ez besterakoa). Euskarak ez omen du ez jerga modukorik ez txispa erakargaririk; arrunt estrainio gertatzen omen zaie kafetegi eta *pubetan*. Ez omen du ondo jotzen. Desleketua, nonbait.

Azken bolada honetan -eta iritsi naiz nahi nuen puntura- ildo beretik sumatu dut ETB-1eko umorezko hainbat euskal programa. Berorietan, euskararen ezina legea bailitzan, oso sarritan jotzen da erdarazko koletila umoristiko errazegien bila, batzuen kasuan harrotasunez puztutako ukitu koxkeroz egin ere. Adierazkortasun edo bizitasun premiak eragindako bitartekoak dira ziurrenik. Baina ez daiteke hori arrazoi nahikoa gerta oraindik ere.

Umore hutsari begira arrazoi dukete apika, berorien baliagarritasuna eta *errealismoa* handiak izan baitaitezke. "*Estanpak dira-eta*", esan daiteke. Eta halaxe da. Graxioso egiten dute zinez. Baina gauza bat da ezinbestean aritzea eta beste bat propio horretan gelditzea. Eta badirudi sarritan horixe besterik ez dela bilatzen, nahiago dela barre algara ozen erraz bat irriño maliziati kostatakoa baino. Eta ez naiz kalitateaz ari, prozeduraz ezpada; sentsibilitateaz, akaso. Beste bide bat hartu behar da hor.

PLIKA ZENBAKIA	Ariketa	1A PROBA
	Kidegoa	HIZKUNTZA ESKOLA OFIZIALAK
	Espezialitatea	EUSKARA
	Data	2021eko ekainaren 26a

Arazoaren laztasuna begi-bistakoa da. Ahaztu egiten dugu, nonbait, hizkuntzak ere inperialistak direla eta gutxien espero denean erasotzen dutela, eta hegali ahulenetik eraso ere. Hala ote da? Halatsu jokutzen dugu, behintzat.

Ustekabean euskal umorea ere trabesti bihurtzen ari ote zaigun errezelua hartua nago. Ez bedi!

ALBERDI, Andres (EUSKALDUNON EGUNKARIA)

B-TESTUA

HARTZ TXIKIA

Hartz txikia auñamendietan,
kobazuloan ametsetan,
Lo-lo luze, lo-lo goxo-goxo
udaberriaren zain.

Mara-mara elurra basoan,
hartza amaren babesean,
isil-isil iluntasunean
lo-lo ametsetan.

Ametsetan blai ilargipean,
basoilarrarekin kanpoan,
salto txiribuelta airean
erleekin dantzan.

Harrapaketan inurriekin
eztiz muturra zikin-zikin,
enborrei kili-kili egin
atzaparrekin.

Ametsetan blai,
egizu lo-lo,

PLIKA ZENBAKIA	Ariketa	1A PROBA
	Kidegoa	HIZKUNTZA ESKOLA OFIZIALAK
	Espezialitatea	EUSKARA
	Data	2021eko ekainaren 26a

ametsetan blai,
luze goxo-goxo.

Pirritx, Porrotx eta Marimotots